



Heteropterus



Nº 51 Zkia. - Marzo 2024 Martxo

ISSN: 1576-1819



Zientzialarien arabera,
Titanomyrma lukei izeneko
inurri erraldoi batek,
zeina duela 50 milioi urte
bizi izan zen eta host zentimetrokoro
neurtzen zuen (kolibri batek bezala),
Artikoa zeharkatu zuen
Lurraren aldirik beroenetan,
kontinenteen arteko lurrezko
zubiak erabiliz.

Zimitzak sei hilabetez bizi daitezke jan gabe,
eta urtebete gizakiz elikatu gabe.
Txoriez eta karraskariez
elikatzen da tarte horretan.
Hilabete askotan bizi daiteke bururik gabe, eta
burua moztu gabeko senideak
baino zaharragoa izatera irits daiteke.



Zoologo ezagun batek dioenez,
1915ean gerrako preso errusiar baten
alkandora batean,
espezie arruntzeko
3.800 zorri bizi
bildu zituen.



Madagaskarko armiarma irulearen
(*Caerostris darwini*) sareek
2,8 m²-ko diametro zabalera
izan dezakete.

Sare horiek ibai eta
lakuen gainean eraikitzen dituzte,
eta sortzen duten zeta inoiz aztertu den
material biologikorik sendoena da,
Kevlar-a baino hamar aldiz sendoagoa.



Inurritegi bateko "biztanle"
kopurua oso aldakorra da.
Batzuek hamar banako besterik
ez dituzte izaten;
beste batzuek, herriz,
hamar milioitik gora.



Zorriek, presioz,
landareen izerdia
xurgatzen dute
tronpa pikatzailearekin.
Eta xurgatzen ari diren bitartean
gorpua mozten bazaie,
burutik izerdi hori isurtzen
jarraitzen dute bizpahiru egunez.



Ixodes ricinus akain eme batek
5 mm neurtzen ditu
baina gorputzaren pisua
200-600 aldiz
handitu dezake eta
1,5 cm izatera irits daiteke.
Munduan 850 akain-espezie daude.



Argitaratzailea / Edita:
Gipuzkoako Entomologia
Elkartea - Asociación
Gipuzkoana de Entomología

Lege-gordailua / Depósito legal:
SS - 1.378/99

ISSN: 1576-1819

Erredakzio taldea / Comité de
redacción:

Eli Insausti
Miriam Moreno
Arantza Oyarbide
Faustino Uranga
Imanol Zabalegui

Azalaren diseinua / Diseño de la
portada:

Faustino Uranga

Azaleko argazkia / Fotografía
de la portada:

COLEOPTERA: CERAMBYCIDAE
Stenopterus rufus (Linnaeus, 1767)
Faustino Uranga

Dohainikako argitalpena bazkide,
Gipuzkoako Eskola eta Udale-
txeentzat / Publicación gratuita
para los socios, Colegios y
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

HETEROPTERUS

Egoitza soziala / Sede social:
Oiartzun (Gipuzkoa)

Gutunak helbide honetara bida-
li behar dira / Toda la corres-
pondencia debe enviarse a:



HETEROPTERUS

Apdo. 193 P.K.
20120 Hernani (Gipuzkoa)



www.heteropterus.org
heteropterus@heteropterus.org

Nº 51 Zkia. • Marzo 2024 Martxo

HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

AURKIBIDEA – ÍNDICE

Orr. / Pág.

17. Ekitaldi Gastroentomologikoa

17º Evento Gastroentomológico 5-8 + 13-14

Pablo Bahillo de la Puebla

Gipuzkoako intsektuak / Insectos de Gipuzkoa 9-12

Intsektuekin jolasean / Jugando con los insectos 15

Faustino Uranga

Hemeroteka 16-17



Oiartzungo Udalaren laguntzarekin

Con la colaboración del
Ayuntamiento de Oiartzun

www.heteropterus.org

17. EKITALDI GASTROENTOMOLOGIKOA

17º EVENTO GASTROENTOMOLÓGICO

Pablo Bahillo de la Puebla

Asterixeko eta Obelixeko komikieta-ko galiarrak bezala, joan den larunbatean, apirilaren 20an, berriro elkartu zen talde menderaezin bat Urumea ibaiaren ertzean, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan. Muxarra Ehiztarien Elkartearen elkartu zen, garai bateko Venta Berri jatetxe zaharrean, basurde marmita baten inguruan, Amaia Zabaleguiren agindu eta gidaritzapean.

Como los galos de los comics de Asterix y Obelix, el pasado sábado 20 de Abril, un grupo de irreductibles volvió a conjurarse a orillas del río Urumea, en la muga entre Gipuzkoa y Navarra, disfrutando de la hospitalidad de la Sociedad de Cazadores Muxarra, en el antiguo restaurante Venta Berri, alrededor de una marmita de jabalí, bajo las órdenes y atinada orientación de Amaia Zabalegui.



Goian / Arriba: Gemma Melgarejo, Iñaki Recalde, Miguel Carles-Tolrá con "Trufa", Pablo Bahillo, Felipe Calvo, Imanol Zabalegui, Unai Hiribarnegarai, M^a Carmen Zuazo, Iñigo Alzugaray, Helena Agell, Xanti Pagola eta Antonio San Martín.

Behean / Abajo: Dan Lertxundi, Faustino Uranga, Nacho Pérez Moreno, Arantza Oyarbide eta Iñaki Alonso.

Hara hurbildu ginen, poliki-poliki, Xanti Pagola, Helena Agell, Imanol Zabalegui, Arantza Oyarbide, Iñaki Alonso eta hau idazten duena. Ongietorri agurren ostean, hainbat helburutarako (ez beti aitorgarriak) maileguan emandako intsektuak



itzuli genizkion elkarri, Helenaren begirada adeitsupean. Berak, eta ez dago oker, kromoak trukatzan dituzten haurrak bezala ikusten gaitu. Gure lan entomologikoaren ikuspegi "jasoa" badugu ere, haren ikuspuntua gero eta gehiago partekatzen dut. Eta ezin dut irribarrea saihestu haurtzaroan pentsatzen dudanean, eta, horri dagokionez, zein gutxi aldatu naizen pentsatzen dudanean. Agerikoak diren beste batzuetan, aldaketa nabarmena da. Okerrera noski!

Bazkarirako, jantokia entomologikoki girotuta zegoen, "Aurrez aurre" erakusketako kartelekin (funtsean, 21 argazkiko bilduma bat, hainbat artropodo iberiarren aurrealdearen lehen planoekin) eta Fernando Hiribarnegarairen (†) bildumako koleopteroen lagin batzuekin, bere lan entomologikoaren txosten zehatz batekin batera.

Allá fuimos llegando, Xanti Pagola, Helena Agell, Imanol Zabalegui, Arantza Oyarbide, Iñaki Alonso y quien esto escribe. Después de los saludos de bienvenida, devolución de insectos prestados para fines varios (no siempre confesables) ante la mirada condescendiente de Helena, quien nos ve, con acierto, como niños que intercambian sus cromos. Aunque tengamos una visión "elevada" de nuestra labor entomológica, cada vez comparto más este punto de vista y no puedo evitar una sonrisa cuando pienso en mi infancia y en lo poco que he cambiado en este aspecto. En otros más evidentes el cambio es notable. A peor.

Para la ocasión, el comedor estaba ambientado entomológicamente con los carteles de la exposición "Cara a cara" (en esencia una colección de 21 fotografías con primeros planos de caras de diversos artrópodos ibéricos) y una muestra de coleópteros de la colección Fernando Hiribar-

negarai (†) acompañada de un dossier detallado de su labor entomológica.

Por "arte de magia", al lado de carteles e insectos aparecieron varios platos provistos de boquerones en vinagre, chorizo a la sidra, aceitunas y patatas fritas adecuadamente acompañados de varias botellas de sidra a la temperatura perfecta. Entre boquerones, sidra, chorizo y buen humor comenzaron las charlas entre los presentes, como si las hubiéramos dejado aparcadas unos minutos antes.

Felipe Calvo, que hacía algún tiempo que no había asistido a estos eventos, nos puso al día de la marcha de la Casa Museo de los Insectos recientemente inaugurada bajo su dirección, en Puebla de Azaba (Salamanca). Nos habló de la buena acogida de la iniciativa recibida por los escolares salmantinos, pero

Kartelen eta intsektuen ondoan, hainbat plater agertu ziren ustekabeen: antxoak ozpinetan, sagardotan egositako txorizoak, olibak eta patata frijituak, tenperatura egokian zeuden hainbat sagardo-botilekin batera. Antxoa, sagardoa, txorizoa eta umore eder artean hasi ziren bertaratutakoen arteko solasaldiak, minutu batzuk lehenago aparkatuta utzi izan bagenitu bezala.

Aspaldiko partez, Felipe Calvo agertu zen, eta Puebla de Azaban (Salamanca) bere zuzendaritzapean inauragutu berri den Intsektuen Etxe Museoa berri eman zigun. Ekimenak izan duen harrera onaz hitz egin zigun, bai Salamancako ikasleengan, baita bestelako publikoarengan ere. Horrelako ekimenak "zaletasun entomologiko" berriak sortzeko giltza izan daitezke.

Ignacio Pérez Moreno, Antonio San Martín eta Iñaki Recalde (Nafarroako eta Errioxako sekzioaren ordezkariak) iritxiaz bat, gora egin zuten bilerako dezibelioek. Jorge Luis Agoiz falta zen, baina esan dezakegu bertaratutakoek nafar-errioxako ordezkaritza oso maila altuan utzi zutela.

Horrela elkartu ziren Faustino Uranga, Iñigo Alzugaray, Dan Lertxundi eta gainerakoak, taldea osatu arte.

Aipamen berezia Mari Carmen eta Unairi, gure lankide eta bazkide zen Fernando Hiribarnegarairen emazteari eta semeari, hain zuzen ere. Bere konpainia eskaini ziguten, omenaldi hunkigarria Fernan-

también por el público en general. Iniciativas como esta pueden ser la llave para la generación de nuevas "aficiones entomológicas".

La llegada de la sección navarro-riojana, representada por Ignacio Pérez Moreno, Antonio San Martín e Iñaki Recalde, provocó una subida de los decibelios de la reunión. Se echó en falta la presencia de Jorge Luis Agoiz, pero podemos afirmar que los presentes dejaron en un nivel muy alto la representación navarro-riojana.

Así se fueron sumando de manera natural, Faustino Uranga, Iñigo Alzugaray, Dan Lertxundi y el resto hasta completar el grupo.

Mención especial para Mari Carmen y Unai, esposa e hijo de nuestro compañero y consocio Fernando Hiribarnegarai. Nos brindaron su compañía que resultó un emotivo homenaje a la memoria de Fernando. Vayan desde estas líneas nuestra gratitud por el esfuerzo realizado.



Si no me equivoco demasiado, los últimos en aparecer fueron Gemma Melgarejo, Miguel Carles-Tolrá y su perrita Trufa. Este año las cristaleras de la sociedad no abastecieron de dípteros a nuestro amigo Miguel, en parte porque el acceso a las ventanas estaba obstaculizado por un montón de sillas que habían sido desplazadas para gene-

doren oroimenari. Lerro hauen bidez, eskertzen dizuegu egindako ahalegina.

Oso oker ez banago, Gemma Melgarejo, Miguel Carles-Tolrá eta haien txakurra, Trufa, agertu ziren azkenak. Aurten elkarteko leihoeak ez zuten dipteroz hornitu gure lagun Miguel, neurri batean, leihotarako sarbidea oztopatuta zegoelako; izan ere, aulki pilo bat lekuz aldatu zen, arestian aipatutako kartelen erakusketa jartzeko hutsune bat sortzeko. Migel

rar un hueco en el que colocar la exposición de carteles ya mencionada. Miguel lo intentó, pero este año, las moscas sencillamente no estaban. Ojalá Gemma y él vuelvan en ocasiones venideras y, entre todos podamos, proporcionarles una buena muestra de dípteros de la zona.

Y llegó la hora de la verdad, la de sentarnos a degustar. La comida fue sencillamente un festival. ¡Qué bien nos tra-



saiatu zen, baina aurten eulirik ez zegoen. Espero dut Gemma eta bera etorkizunean itzultzea eta, guztion artean, inguruko dipteroen lagin on bat eskaintzea.

Eta esertzeko eta dastatzeko momentua iritsi zen. Janaria, nola esan, jaialdi bat. Zein ongi tratatzen gaituzuen! Menua: piper beteak, luxua; kroketak, goxoa; nola deitu ez dakidan zerbait, *Boletus*-ekin, benetako ikuskizuna; eta basurde gisatua, han elkartu izana justifikatzeko nahikoa. Errematzeko, postre goxogoxoa, kafeak, eta nahi zuenarentzat likore-digestiboak.

Zerbitzua, paregabea. Amaiak, Arantzaren laguntzarekin, dena arin joatea lortu zuen. Konturatu gabe, baina horrek dakarren lanaz jabetuta, dena naturaltasunez joan zen, ia miraria balitz bezala.

táis! El menú: pimientos rellenos, de lujo; croquetas, deliciosas; algo que no sé cómo llamar, con *Boletus*, un auténtico espectáculo y jabalí guisado, que justificaba por sí solo el habernos reunido allí, rematado con un postre goxogoxoa, cafés variados y licores digestivos para quien lo solicitó.

El servicio inmejorable, Amaia, con la ayuda de Arantza, logró que todo fuera ágil. Sin darnos cuenta, pero siendo conscientes del trabajo que ello conlleva, todo fue fluyendo con naturalidad, casi como un milagro.

Entre plato y plato, fueron desfilando las *Erebias* de Dan, la importancia y utilidad de los listados/catálogos de diversos grupos de coleópteros en los que

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA

LEPIDOPTERA

GEOMETRIDAE

Cyclophora puppillaria

(Hübner, 1799)

Neurria: 28-36 mm.

Penintsula osoan zehar hedatuta dago. Harizti eta artadietan aurki daitezke. Bi belaunalditan egiten dute hegan, apirila eta urria bitartean.

Beldarrak, batez ere, haritz hostoez elikatzen dira. Forma ugari ditu.

Pupak haritz adarretan hibernatzen du. Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 28-38 mm.

Se distribuye por toda la península. Se pueden encontrar en bosques con robles y encinas. Vuelan en dos generaciones entre abril y octubre.

Las orugas se alimentan principalmente de hojas de roble. Tiene una gran variabilidad de formas.

La pupa hiberna en ramas de roble. Es escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

GEOMETRIDAE

Cyclophora quercimontaria

(Bastelberger, 1897)

Neurria: 24-28 mm.

Batez ere, hariztietan aurki daitezke. Helduek bi belaunalditan egiten dute hegan, maiatzetik irailera.

Beldarrak, batez ere, haritz hostoez elikatzen dira. Penintsularen iparraldean banatuta dago.

Pupak haritz adarretan hibernatzen du. Gipuzkoan arrunta da.




Tamaño: 24-28 mm.

Se pueden encontrar sobre todo en bosques de robles. Los adultos vuelan en dos generaciones, de mayo a septiembre.

Las orugas se alimentan preferentemente de hojas de roble. Se distribuye por el norte de la península.

La pupa hiberna en ramas de roble. Es común en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Neurria: 25-32 mm.

Bi belaunalditan egiten dute hegan, maiatzetik irailera. Helduek baso hezeak dituzte gustuko.

Beldarrak, batez ere, sahatsez, hal-tzez, ahabiez... elikatzen dira.

Penintsulako iparraldean dago.

Forma ugari ditu.

Gipuzkoan arrunta da.

LEPIDOPTERA

GEOMETRIDAE

Dysstroma citrata

(Linnaeus, 1761)

Tamaño: 25-32 mm.


Vuelan en dos generaciones desde mayo hasta septiembre. Los adultos frecuentan los bosques húmedos.

Las orugas se alimentan principalmente de sauce, aliso, arándanos...

Se distribuye por el norte peninsular.

Tiene variedad de formas.

Es común en Gipuzkoa.



Neurria: 27-36 mm.

Helduek hainbat belaunalditan egiten dute hegan, maiatzetik urrira. Baso soilgune, zelai eta eremu harritsuetara jotzen dute.

Beldarrak polifagoak dira.

Penintsularen iparraldean aurkitzen da.

Espezie aldakorra da, tamainari eta koloreari dagokionez.

Gipuzkoan arrunta da.

LEPIDOPTERA

GEOMETRIDAE

Dysstroma truncata

(Hübner, 1756)

Tamaño: 27-36 mm.

Los adultos vuelan en varias generaciones de mayo hasta octubre. Frecuentan claros de bosques, prados y terrenos rocosos.

Las orugas son polípagas.

Se distribuye por la mitad norte peninsular.

Especie variable en tamaño y color.

Es común en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA

COLEOPTERA

MELYRIDAE

Dasytes aeratus

Stephens, 1830



Neurria: 4-5 mm.

Gris beltzaxka, distira urdinxkak dituena.

Elitroetan ile gris zilarrezatuak ditu.

Helduak hainbat landare eta lore gaine-tan aurki ditzakegu, udaberri-uda garaian.

Larbak beste intsektu batzuen larben harrapakari dira.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 4-5 mm.

Gris negruzco con un ligero reflejo azulado. Elitros con pelos gris plateado.

Los adultos se encuentran en primavera-verano sobre diversas plantas y en las flores.

Sus larvas se alimentan depredando larvas de otros insectos.

Es escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CARABIDAE

Licinus punctatulus

(Fabricius, 1792)



Neurria: 13-20 mm.

Karabido zabala, zapala eta beltza da.

Buru txikia du.

Antena pubeszenteak ditu, laugarren gilitzartetik aurrera.

L. aequatus ez bezala, hegoduna da, eta handiagoa.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 13-20 mm.

Carábido ancho, deprimido, de color negro. Cabeza pequeña.

Antenas pubescentes a partir del cuarto artejo.

Alado y más grande si lo comparamos con *L. aequatus*, que es aptero y de menor tamaño.

Es escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Neurria: 4,5-6 mm.

Marroi kolorekoa. Karabido hegoduna da, eta familiako beste espezie batzuk bezala, hegalaria ona.

Ingurune hezeak ditu gustuko. Neguko hilabeteetan aktiboagoa da, eta udako hilabete beroetan ia desagertu egiten da.

Gipuzkoan urria da.

COLEOPTERA

CARABIDAE

Ocys harpaloides

(Audinet-Serville, 1821)

Tamaño: 4,5-6 mm.

De color testáceo. Es un carábido alado que, como otras especies de la familia, puede volar perfectamente.

Vive en ambientes húmedos. Es más activo en los meses invernales y prácticamente desaparece en los meses calurosos de verano.

Es escasa en Gipuzkoa.



Neurria: 5,5-6,5 mm.

Kolore arreak dira, antena eta hanka testazeoekin. Genero bereko beste espezie batzuekin alderatuz gero, distiragutxikoa.

Batez ere, zuhaitzen azalaren azpian aurki dezakegu.

Ia Iberiar Penintsula osoan dago.

Gipuzkoan urria da.

COLEOPTERA

CARABIDAE

Dromius meridionalis

Dejean, 1825

Tamaño: 5,5-6,5 mm.

De color pardo con las antenas y las patas testáceas. Poco brillante, comparado con otras especies del mismo género. Podemos encontrarla principalmente debajo de la corteza de los árboles.

Se distribuye por casi toda la Península Ibérica.

Es escasa en Gipuzkoa.

Bazkaldu bitartean, Danen Erebiak ikusi genituen, hainbat kakalardo taldeen katalogoen garrantzia eta erabilgarritasuna, non gure lagun eta kide den Iñaki Alonso derrigorrezko erreferentzia bilakatzen ari den, Iñigoren dronen hegaldiak (legezkoak barne); Nafarroako eta Errioxako lagunek garatutako Errege Bardeako entomofaunaren ikerketak, Miguelen dipteroak, Xantiren zimitzak, "herri-tarren zientzia" deitu izan denaren gaineko ikuspegi kritikoa ahaztu gabe, edota administrazioek biodibertsitate entomologikoari buruzko azterlanak sustatu eta garatzeko duten zeregina, zeina dezente hobe daitekeen.

Bazkaldu bitartean, gai hauek buruz aritu ginen hizketan: Danen Erebiak, gure lagun eta kide den Iñaki Alonso nahi-taezko erreferente bihurtzen duen koleoptero talde batzuen zerrenda/katalogoen garrantzia eta erabilgarritasuna, Iñigoren dronen hegaldiak (baita legezkoak ere), Nafarroako eta Errioxako lagunek garatutako Errege Bardeako entomofaunaren ikerketak, Miguelen dipteroak, Xantiren zimitzak, "herri-tarren zientzia" deiturikoari buruzko ikuspegi kritikoa, edo administrazioen papera (zeina hobe daitekeen) biodibertsitate entomologikoari buruzko azterlanak bultzatu eta garatzeko.

Kafeen orduan iritsi zen, behar bada, ekitaldi gastroentomologikoko unerik gorena, aurten Gipuzkoako Entomologia Elkartearen sorreraren 25. urteurrena ospatzen baita. Harrigarria da elkarte denbora horretan guztian mantendu izana. Ondo dakigu "mirari" horren atzean Xanti, Imanol eta Faustinoen buruak eta eskuak daudela, eta 25 urte horiek lanordu asko eta une gazi-gozo ugari ezkutatzen dituztela. Hemendik gure aitortza eta esker ona adierazi nahi diegu, entomologo guztientzako espazio partekatu hau sortu, garatu

nuestro amigo y consocio Iñaki Alonso se está convirtiendo en una referencia obligada, los vuelos de los drones de Iñigo (incluso los legales), los estudios de entomofauna de las Bardenas Reales desarrollados por los amigos navarro-riojanos, los dípteros de Miguel, los chinches de Xanti, sin olvidar la visión crítica sobre lo que se ha dado en llamar "ciencia ciudadana" o el papel manifiestamente mejorable de las administraciones en el impulso y desarrollo de los estudios sobre biodiversidad entomológica.

A la hora de los cafés llegó quizás el momento cumbre de este evento gastroentomológico, ya que este año se celebra el 25 aniversario de la constitución de la Asociación Gipuzkoana de Entomología. No deja de ser un milagro



que la asociación se haya mantenido durante todo este tiempo. Bien sabemos que detrás de ese "milagro" están las cabezas y las manos de Xanti, Imanol y Faustino y que esos 25 años esconden muchas, muchas horas de trabajo, muchos sinsabores y algunas alegrías. Desde aquí nuestro reconocimiento y nuestra gratitud por haber generado, desarrollado y mantenido

eta mantendu izanagatik. Arantzak, elkar-
teko idazkari eta zeremonia-maistra gisa,
egin zien putz kandlei, 25. urteurrena
ospatzeko. Nahiago nuke ufako horrek
proiektu honen jarraitutasunari indar
erantsia emango balio.

Dagoeneko, urte asko daramatzagu mahai
baten inguruan biltzen, une entomologiko-
ak eta pertsonalak partekatzen; baina
uste dut, urtetik urtera, partekatutakoa
zein menuak hobeak direla. Ez dadila gel-
ditu, eta jarrai dezagun beste 25 urtez,
gutxienez, elkar ikusten eta gozatzen!

Maite zaituztegu.

este espacio compartido para todos los
entomólogos. Arantza, como maestra de
ceremonias y secretaria de la asocia-
ción durante todo este tiempo, fué la
encargada de hacer visible ese 25 ani-
versario soplando las velas. Ojalá que
ese soplado dé fuerza añadida a la con-
tinuidad de este proyecto.

Ya son muchos años los que nos hemos
juntado alrededor de una mesa para
compartir momentos entomológicos y
personales, pero creo que cada año,
tanto lo compartido como los menús, son
mejores. Que no pare y que nos sigamos
viendo y disfrutando otros 25 años. ¡Al
menos!

Se os quiere.

Pablo Bahillo de la Puebla
Barakaldo, 25 de Abril de 2024





INTSEKTUEKIN JOLASEAN JUGANDO CON INSECTOS

Faustino Uranga



Sekuentzia honetan, zer zenbaki dagokio galdera ikurra duen amona mantangorriari?

¿Qué número corresponde en esta secuencia a la mariquita con interrogante?



Kakalardo errementariari 3 katebegiko 5 kate zati ekarri dizkiote, eta haiekin kate bakar bat osatzeko eskatu diote. Zein da hori lortzeko ireki eta itxi beharko duen katebegi kopururik txikiena?

Al escarabajo herrero le han traído 5 trozos de cadena de 3 eslabones cada uno y le han encargado que forme con ellas una sola cadena. ¿Cuál es el número mínimo de eslabones que tendrá que abrir y cerrar de nuevo para conseguirlo?

Aurreko zenbakiko erantzuna / Respuesta al número anterior:

Marraskia 180 gradu biratu behar duzu, besterik ez.

Solo hay que girar el dibujo 180 grados.



Lagunak hiru seme-alaba ditu: bata urdina, bestea urre kolorekoa eta hirugarrena gorria.

La amiga tiene tres hijos, uno azul, uno dorado y otro rojo.



HEMEROTEKA

El Diario Vasco 17/12/2023

EL PICUDO ROJO

Características

► **Qué es.** Un insecto nocivo que puede atacar a una amplia cantidad de palmeras. Es un escarabajo y tiene un color rojizo ferruginoso que lo hacen inconfundible.

► **Biogeografía.** Originario de las regiones tropicales del sureste asiático y Polinesia, llegó a la UE en la década de los 90.

► **Ciclo biológico.** Vive y se alimenta en el interior de las palmeras, lo que hace difícil detectar su presencia con una simple inspección visual.

► **Esperanza de vida.** El adulto puede vivir de 45 a 90 días, tiene el cuerpo oval alargado de 19 a 45 mm de longitud.

► **Síntomas en las palmeras.** Destrucción de la nueva vegetación, decaimiento de las hojas externas, retorcimiento de las hojas en las axilas y un desplomado general de la corona de la palmera.

El picudo rojo ataca ya a las palmeras de Gipuzkoa

Es un insecto nocivo que puede provocar la muerte de estos árboles, muchos de ellos «centenarios», y cuya presencia se ha detectado en Zarautz

IRIGO VILLAMIA

SAN SEBASTIÁN. Su propagación es imparable y su daño puede incluso provocar la muerte de las palmeras. Hablamos del picudo rojo (*Rhynchophorus ferrugineus*), uno de los insectos más dañinos para estos árboles en el mundo que ya se ha cobrado sus primeras víctimas en Gipuzkoa. Concretamente en Zarautz, donde su presencia ha hecho saltar las alarmas y ha obligado al departamento de Horticultura del Ayuntamiento a aplicar en dos ocasiones un tratamiento de endoterapia con insecticidas para evitar que las plagas pongan en riesgo a todas las palmeras de la localidad. Es la primera vez que se detecta en el territorio la llegada de este escarabajo que, por lo general, suele aparecer en climas cálidos.

De hecho, en 2015, el picudo rojo puso en jaque la supervivencia del palmeral de Elche, Patrimonio de la Humanidad por la Unesco. En tan solo dos años, en la ciudad ilicitana se talaron más de 55.000 palmeras afectadas.



Proliferan quejas por la chinche apestosa en Bizkaia y Gipuzkoa

No es una plaga propiamente dicha porque el bicho no pica ni transmite enfermedades a personas o animales y tampoco ha afectado por el momento a cultivos, pero sí lo es por su aparición masiva y de forma más o menos repentina en algunos núcleos urbanos.

GARA / DONOSTIA

Muchos hogares de Euskal Herria luchan estas últimas semanas contra una invasión de chinche apestosa marrón, un insecto invasor asiático que no causa problemas de salud pero sí molestias en viviendas cercanas a zonas verdes y arboladas de numerosas poblaciones, sobre todo, de Gipuzkoa y Bizkaia.

insecto molesto porque se mete en las casas.

No hay afición en la actividad agrícola del territorio pero «estamos muy atentos porque en otros lugares sí ha causado daños en cultivos», agregaron las fuentes.

Este tipo de chinche ya causó desazón el año pasado por estas fechas pero ahora, con más incidencia, vuelve a ser desde este septiembre quebra-

AGRICULTURA

No hay afición en la actividad agrícola pero «en otros lugares sí ha causado daños en cultivos», afirman

fuentes del Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

forma de escudo de color pardo-marrón «marmoleado» que vive y se reproduce en zonas verdes y cultivos y se alimenta de hojas, tallos y frutos, pero que con el final del verano y el principio del otoño busca lugares protegidos para hibernar.

«Cierta alarma social». El presidente de Asepla Euskadi, asociación de empresas vascas especializadas en control de

pero este año las llamadas «se han generalizado» porque buscan lugares protegidos y se meten en las viviendas.

«Hay cierta alarma social», añadió el experto, que llamó a la tranquilidad «porque no entran en casa para criar».

No hay gran cosa que hacer contra estos incómodos compañeros de piso y no es aconsejable rociarlos de insecticida, porque aplicados sin criterio profesional no resultan eficaces, indicó el experto, quien recomendó en general adoptar medidas de contención para mantenerlos fuera de casa, como el uso de mosquiteras, porque «en dos o tres semanas más dejarán de molestar».

«Es una molestia para la población, sobre todo de las ciudades, que está poco acostumbrada a convivir con insectos, pero es más preocupante que con el tiempo pueda producir daños en cultivos, algo bastante probable», añadió.

Gara 2023/10/07

HEMEROTEKA

El mosquito tigre se expande por el País Vasco


DISTRIBUCIÓN DE SU PRESENCIA EN LA CAPV (hasta finales de 2023)



19 MUNICIPIOS GUIPUZCOANOS AFECTADOS

Andoain, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Errenteria, Herrandi, Hondarribia, Irún, Leizor, Lemo, Olartzun, Pasaia, San Sebastián, Tolosa, Zaratuz, Zumai y Zumarraga

Sólo las hembras pican. Los machos se alimentan de azúcares como el néctar o el polen de las plantas. Las hembras necesitan la sangre como un aporte especial de proteínas para la producción de los huevos.




DÓNDE PICAN




Son difíciles de ver en vuelo, porque vuelan bajo y pican especialmente en la extremidades inferiores. Sin embargo los niños, por su menor estatura, si son picados en cualquier parte del cuerpo.

LA PICADURA

Son atraídos por el calor, el olor, la humedad o el dióxido de carbono que desprende la persona. El grupo sanguíneo 'O' es el preferido de estos insectos (lo detectan por olor del ácido láctico de la piel).



En la mordida, un par de mandíbulas y maxilas perforan la piel con movimientos hacia arriba y hacia abajo, como una sierra.



Cuando alcanza el vaso sanguíneo, el movimiento se detiene. La hipofaringe inyecta saliva anticoagulante.



Luego succiona la sangre, que pasa a través del labrum hasta el estómago del mosquito.

PRINCIPALES ENFERMEDADES QUE TRANSMITEN

Estos mosquitos, si están previamente infectados, transmiten entre otras las siguientes enfermedades:



DÓNDE SE REPRODUCEN

Este tipo de mosquito pone sus huevos sobre paredes de recipientes con agua o en cualquier zona encharcada.



Limpia nuestro entorno de estos objetos para evitar la cría de estos mosquitos.

Dispersión del virus en las glándulas salivares.

CÓMO SE PRODUCE EL CONTAGIO



CÓMO SE INFECTA EL MOSQUITO




El virus es adquirido por la ingesta de sangre (A). Una vez superada la barrera del epitelio intestinal (B), puede distribuirse a diferentes tejidos. El más importante son las glándulas salivares. A través de la saliva, puede transmitir el patógeno por la picadura (C).

El Diario Vasco 26/08/2024



Según los científicos una hormiga gigante, llamada *Titanomyrma lubei*, que vivió hace 50 millones de años y media hasta cinco centímetros (como un colibrí) cruzó el Ártico durante los períodos más cálidos de la Tierra, usando puentes de tierra entre los continentes.

Las chinches pueden vivir hasta seis meses sin comer y sobrevivir hasta un año sin alimentarse de humanos, atacando a pájaros y roedores. Una chinche sin cabeza puede vivir muchos meses y hasta alcanzar una edad más avanzada que la de sus hermanas no decapitadas.



Un conocido zoólogo cuenta que en el año 1915 recolectó en la camisa de un prisionero de guerra ruso 3.800 piojos vivos pertenecientes a la especie del piojo común.




Las telas de la araña hilandera de Madagascar (*Caerostris darwini*) pueden llegar a medir hasta 2,8 m² de diámetro. Las construyen encima de ríos y lagos. Su seda es el material biológico más fuerte jamás estudiado, siendo unas diez veces más resistente que el kevlar.



El número de "habitantes" en un hormiguero oscila desde algunas que no sobrepasan la docena de individuos a otras con más de diez millones.



Los pulgones absorben la savia de las plantas a través de la trompa picadora por medio de la presión. Tanto es así que si le cortamos el cuerpo mientras chupa la savia impulsada a través del pico, chorrea de la cabeza muerta durante dos o cuatro días



Una hembra de garrapata *Ixodes ricinus* mide 5 mm y puede aumentar su peso corporal de 200 a 600 veces y llegar a medir 1,5 cm. Existen 850 especies de garrapatas en el mundo.





mendiz-mendi
paisajes culturales

mendez-mende
naturaleza con historia



GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➔